



1/2002 GOMENDIOA, URTARRILAREN 14KOA, EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILARI EGINA, BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATEKO OSPITALE BATETIK EUSKAL HERRIRA EKARRI ZUTEN GAIXO BATI GARRAIO-GASTUAK ORDAIN DIEZAZKION.

Aurrekariak

Istripu baten ondorioz, pertsona bat Nafarroako ospitale batera eraman behar izan zuten. Paraplegiko geratu zen eta, egun batzuk geroago, anbulantzian eraman zuten bere bizilekura, Gipuzkoako herri batera. Anbulantziaren kostua ordain ziezaion eskatu zion Osasun Sailari.

Gaixoak betetzen zituen urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuan osasungarraioaz ezarritako baldintzak (alegia, garraio arrunta erabili ezina).

Hala ere, Osasun Sailak ez zuen ordainketa bere gain hartu, alegatu baitzuen lekualdaketa beste erkidego batetik egin zela eta eskabidea 4/2001 Zirkularra indarrean jarri aurretik egin zela. Zirkular horretan adierazten da osasun-garraioa nola kudeatu gaixoa Euskal Herritik kanpo dagoenean.

Gogoetak

Kexa horren mamiak bazuen antzik 2000 urtean Eusko Legebiltzarrentzako txostenean gomendio orokor bat egitera bultzatu gintuzten beste kexa batzuenarekin¹. Gomendio hartan azaldu genuen zergatik uste duen Ararteko erakundeak 63/1995 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren, osasun-sistema publikoa erabiltzen dutenek osasun-garraioa izateko eskubidea dutela, horretarako baldintzak betetzen badira – nahiz eta beren jatorrizko erkidegoa ez den batean artatuak izan-.

Gomendio orokor hori egin eta gero, Osasun Sailak 4/2001 Zirkularra onartu zuen, gaixoak beste autonomia erkidego batzuetatik lekuz aldatzean osasun-garraioa ordaintzeko prozedura arautzeko, eta, hartara, bere gain hartu zituen 63/1995 Errege

¹ EUSKADI. Ararteko. Gomendio orokorrak: Euskal erabiltzaileek osasun garraiorako duten eskubidearen aplikazioa, beste erkidego batean daudenean. EUSKADI. Ararteko. Eusko Legebiltzarrentzako Txostena 2000. Vitoria-Gasteiz: Ararteko, 2001, 444-449. orr.

EUSKADI. Ararteko [linean]. Gomendio orokorrak: Euskal erabiltzaileek osasun garraiorako duten eskubidearen aplikazioa, beste erkidego batean daudenean. Eusko Legebiltzarrentzako Txostena 2000. Vitoria-Gasteiz: Ararteko, [2002-05-08ko erref.]. Helbide honetan irakur daiteke: <http://www.ararteko.net>



Dekretuko baldintzak betetzen zituzten lekualdaketa gehienak –ez denak-. Zirkular horren ezarpen-eremutik kanpo geratzen dira berori indarrean jarri aurretik izan ziren lekualdatzeengatik ordainketak, eta horixe gertatu da kexa eragin zuen kasuan.

Barne-xedapen edo zirkular hori gastu-ordainketaren tramitazioari buruzko zalantzak argitzeko bidetzat hartu behar zen, baina ez, berez, osasun-garraioa izateko eskubidearen iturri gisa, eskubide hori 63/1995 Errege Dekretuan arautua baitago.

2000 urteko gure gomendio orokorrean² (2), bide horiek (arau edo zirkularrak) baliagarriak zirentz aztertu genuen. Horregatik, egokia iruditu zitzaigun Osasun Sailari han adierazitakoa gogoraraztea: zuzenbide alorrean ez dela bidezkoa eskubideak mugatzea, xedapen orokorrak ez diren barne-arauetan oinarrituta (“...gogoan izan behar da zirkular baten bitartez prozedura edo organizazio baten barneko alderdiak arau daitezkeela, baina ezin direla herritarren eskubideak murriztu”).

Horregatik guztiatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

1/2002 GOMENDIOA, urtarrilaren 14koa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari

Berriz azter dadila interesdunaren eskabidea -beste autonomia erkidego batetik bere etxera anbulantzian eramateak sortutako gastuak ordain diezazkieten eskatu du-, eta garraio horren inguruko zertzeladak aintzat hartu ondoren, beste erabaki bat har dadila, 63/1995 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak bete diren ala ez kontuan izanik.

² EUSKADI. Ararteko., 1. erref.